

FREDERICK

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartoi gogorrean egina. 22 x 30 m. 40 or. 16 €.

IRAKURKETA PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

Frederick (euskara)

ISBN 978-84-7681-917-3. Kalandraka-Pamiela.

Frederick (gaztelania)

ISBN 978-84-933759-1-1. Libros para soñar.

Frederick (galegoa)

ISBN 978-84-8464-502-3. Tras os montes.

Frederick (katalana)

ISBN 978-84-8464-731-7. Kalandraka.

Frederico (portugesana)

ISBN 978-972-8781-30-9. Livros para sonhar.

- *Frederick, zergatik ez duzu lanik egiten? –galdetu zioten.*

- *Lanean ari naiz -erantzun zuen Frederickek-.*


Eguzki printzak biltzen ari naiz, neguko egun hotz eta ilunetarako...

Sagu familia batek janaria biltzen du, eta denak aritzen dira lanean, Frederick izan ezik, ez baitu ezer egiten, itxuraz behintzat. Baina, besteen oharkabean, berak ere gauzak biltzen ditu: eguzki-errainuak, koloreak, hitzak... Negua ailegatzan denean, orduan ohartuko dira beste saguak Fredericken lana funtsezkoa izan dela denek neguaren gogorra jasan hala izateko. Eta, azkenean, den bezalakoa onartzen dute Frederick.

Leo Lionni album irudidun modernoaren aitzindarietako bat da. Kontakizunak jorratzen dituen gaietako bat banakotasuna da, norberaren izanaz ohartzea eta norberaren onarpena. Frederick poeta da, eta, bere modura, ekarpena egiten dio taldeari berak ere. Artista ez da bere burua baztertzen duen pertsona bat, baizik eta besteentzat beharrezkoa den norbait. Lanaren garrantziaren aldean, Frederickek argi nabarmentzen lastoa eta intxaurrek beharrezkoa direla, baina beste gauza batzuk ere bai.

Frederickek berekoia dirudi, baina "berekoikeria" hori bere buruarekin leial jokatzeko modu bat besterik ez da. Sagu-zuloko bizilagunek ez diote leporatuko geldoa dela. Aitzitik, errespetatzen dute, gogoeta egiten uzten diote, jakin-minez begiratzen dute mundu misteriotsu hori, eta, azkenik, miretsi eta eskertuko dute.

Egileak norberaren askatasunaren garrantzia nabarmentzen du: irakurleek babesa sentituko dute, ongi baitakite saguek Fredericken berezitasuna errespetatuko dutela. Leo Lionnik ditzera ematen dute bakoitzak nahi duena izan behar duela, beldurrik gabe, eta besteak hori ulertzeko eta onartzeko gauza izango direla.



■ **Gala:** poesia eta artea.

■ **Adin egokia:** 4 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzeko modukoak:** haur literaturaren klasiko bat; norberaren nortasunaren sendotzeko prozesua; askatasuna; "[Matiasen ametsa](#)", "[Igeritz](#)", "[Urdin Txiki eta Hori Txiki](#)", "[Munduko etxerik handiena](#)", "[Alex eta sagu mekanikoa](#)", "[Arrarik arra](#)", "[Kornelio](#)", "[Kolore baten jabe](#)", "[Arrainak arrain](#)", "[Colores](#)" eta "[Números](#)" eta oraindik irakurtzen ez dakitenentzako "[Frederick](#)" sailaren egile bera.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

https://issuu.com/kalandraka.com/docs/frederick-eusk_6348b38c8e65d6

Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910-Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni giro artistiko batean hazi zen –ama operako kantari izan zuen, eta bere osaba Piet margoale amorratua-. Txikitatik jakin zuen zein zen bere patua. Hala ere, ez zuen arteko ikasketarik egin, baizik eta Ekonomia, eta horretako doktoretza eskuratu. 1931n Milanen bizitzen jarri, eta diseinu grafikoaz interesatu zen. 1939an Ameriketara joan, eta Filadelfiako publizitate agentzia batean hasi zen lanean Olivetti korporazioan eta *Fortune* aldizkarian. Artista gisara ere nabarmentu zen, eta bere obrak arte-erakusgela hoberenetan agertzen hasi ziren, Estatu Batuetan eta Japonian. Leok berak esan zuenez, "*Nolabait, nonbait ere, arteak haurtzaroko sentimenduak adierazten ditu beti*". Haurrentzat egin zuen lehenbiziko liburua kasualitatez sortu zen: treneko bidaiaren batean, paper-puskaz egindako ipuin batekin hasi zen entretentzen bere ilobak. Horrela sortu zen "*Urdin Txiki eta Hori Txiki*" (1959), eta haren ondotik beste 40 liburu etorri ziren, mundu guztiko kritikari espezializatuek goraiatuak. Margolari, irudigile, diseinatzaile eta eskultore gisara egindako merituengatik, 1984an, Ameriketako Arte Grafikoen Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen.

